

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Lezamako Udala

Ayuntamiento de Lezama

2010



AURKIBIDEA / ÍNDICE

0. LABURDURAK	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	8
II.1. LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA	8
II.2. URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.....	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	10
III.1. AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA	10
III.2. LANGILERIA	10
III.3. TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK.....	10
III.4. KONTRATAZIOA	11
III.5. BESTELAKO ALDERDIAK	13
IV. FINANTZEN ANALISIA	14
V. URTEKO KONTUAK	17
ALEGAZIOAK	21
0. ABREVIATURAS	25
I. INTRODUCCIÓN	27
II. OPINIÓN	28
II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD	28
II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES	28
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	30
III.1 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD	30
III.2 PERSONAL	30
III.3 TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES	30
III.4 CONTRATACIÓN	31
III.5 OTROS ASPECTOS	33
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	34

V. CUENTAS ANUALES	37
ANEXOS	41
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación que le resulta de aplicación .	41
A.2 Presupuesto y sus modificaciones	42
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	42
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	44
A.5 Gastos de personal	44
A.6 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas	45
A.7 Inversiones reales	45
A.8 Deudores presupuestarios	46
A.9 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial	47
A.10 Clasificación funcional del gasto	47
A.11 Análisis de contratación	48
A.12 Contingencias por reclamaciones	49
ALEGACIONES	51

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 31a
Vitoria-Gasteiz, 31 de mayo de 2012



0. LABURDURAK

BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BOE	Estatuko Aldizkari Ofiziala
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
SPKL	30/2007 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
EFPL	6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
DLO	38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena.
TEOA	1372/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Ondasunen Arautegia.
1627/97 ED	1627/1997 Errege Dekretua, eraikuntza lanetan segurtasun eta osasunaren gutxieneko xedapenak ezartzen dituena.
8/2010 LED	8/2010 Legearen Errege Dekretua, defizit publikoa murrizteko aparteko neurriei buruzkoa
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
APKLTB	2/2000 Legegintzazko Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua.
LELTB	1/1995 Legegintzazko Errege Dekretua, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateratua.
Udalhitz	Tokiko euskal erakundeen lanerako baldintzak arautzen dituen akordioa.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Lezamako Udalaren 2010eko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Finantzarioa: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua eta memoria; baita udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren aurrekontuen likidazioa ere.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.

Lezamako udalerrriak 2010eko urtarrilaren 1eko biztanleen udal erroldaren arabera 2.501 biztanle ditu eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko eta Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoko partaide da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1. LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA (ikus A.11)

- 1.- Kurutzeko industri unea urbanizatzeko lanen espedientean (5 zk. esp.), 5,5 milioi euroan esleitutakoak, hiru aldaketa egin ziren 1,7 milioi euroren zenbatekoan, hasierako zenbatekoaren % 31, alegia. Aldaketa horiek -kopurua aintzat hartuta- kontratazio araudiaren lizitazio printzipioak urratzen dituzte, kontratuaren xedea ez ezik, kontratuaren bolumen ekonomikoa ere itxuraldatzen dutelako. Gainera, aldaketetan bigarrena, 296.691 euroan esleitu zena, obraren aurrekontua gehitu gabe eta dagokion aurrekontuko aldaketa onetsi gabe izapidetu zen.
- 2.- Hilario Astorki plaza urbanizatzeko lanak 429.621 euroan esleitu ziren eta lanaren (2. fasea) azken ziurtagiriak proiektuan jaso gabeko obra unitateak barne hartzen ditu, 85.286 eurokoak; horiek berariaz onartu behar ziratekeen dagokion aldaketa espedientea bideratuta.

Epaitegi honen iritzira, Lezamako Udalak, aurreko 1. eta 2. ataletan aipatutako lege hausteak alde batera, zuzentasunez bete du 2010eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2. URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Honekin baterako likidazioko sarreraren 4. kapituluak itunpeko zergen (Udalkutxa) diru-bilketan parte-hartzeagatik 1,1 milioi euroren sarrerak barne hartzen ditu; sarrera horiek 1,5 milioi eurokoak dira eta 2010eko ekitaldiaren azken kitapenaren kontura egindako emakidei eta aurreko ekitaldiaren kitapen negatiboari dagozkio, 344.039 eurokoa izan zena. Azken zenbateko hau 9. kapituluko sarrera modura ere kontabilizatu zen, Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluak 2010eko otsailaren 19an adostutako ordainketa-gerorapena erregistratzeko, zeinak itzulketa kopuru bereko hileroko 36 mugaegunetan egin behar dela agintzen duen, 2011ko urtarriletik aurrera hasita. Erabaki honek, halaber, zor saldotik kentzeko balizko likidazio positiboak aplikatzeko aukera ematen zuen eta horretarako baliatu zein 2011n, 2010eko likidazio positiboa, 76.828 eurokoa.

- 1.- Udalak 2000n ibilgetuaren balorazioak berrikusi zituen eta idazpuruetakoko saldo globalak aldatu zituen aurrekontuen kontabilitatean jasotako informazioa baliatuta. Hala eta guztiz ere, ez du ibilgetua eragiten duten egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten eta zehazki, ez du ibilgetuaren elementu bakoitzeko xehapenik egiten eta ez ditu horren amortizazio gastuak erregistratzen. Horregatik guztiagatik, ez dezakegu zehaztu ea ibilgetuko kopuruek 10/12/ 31n Udalaren ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen duten.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2.- Hona hemen 2010eko abenduaren 31n gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinean, data horretan itxitako Egoera Balantzean eta Funts Propioetan eragina duten doiketak:

Kontzeptua	Euroak milakotan			
	Aurrekontukoa Diruzaintza geldikina	Ondarekoa		
		Aktiboa	Pasiboa	Funts Propioak
10.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak				
A.3 Zaborrak jasotzeko tasa, 2010eko 3. eta 4. hiruhilekoa	-	73	-	73
A.4 Udalkutxaren 2010eko likidazioa	-	77	-	77
10.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko obligazioak				
- Hainbat zerbitzuren ordainagiriak, 2010ean sortu eta 2011n erregistr.	(52)	-	52	(52)
Beste batzuk				
A.7 Kurutzeko industri unearen hirigintz. aprobetx.	1.229	-	(1.229)	1.229
GUZTIRA	1.177	150	(1.177)	1.327

3.- Txosten hau idatzi dugun datan, Udalaren kontuetan eragina izan dezaketen hainbat gertakari daude, horiek zenbatestea ezinezkoa dena, 10.12.31n epai irmoa jaso zain dauden errekurtsioetatik eratorritakoak. Errekurtsorik garrantzizkoenak 441.271 euroan zenbatetsitako erreklamazioa jasotzen du (ikus A.12).

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako ezbetetzeak eta 3. paragrafoan aipatutako errekurtsio judizialen azkena ezagutuko balitz egin beharko liratekeen doiketak alde batera, Lezamako Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan 2010eko aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten du, ondarearen eta 2010eko abenduaren 31n finantza egoeraren irudi leiala eta ekitaldi horretan bere eragiketen emaitzena.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1. AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- Kurutzeko industri unea urbanizatzeko lanak finantzatzeko diru izendapenak dagokion inbertsioko kontu-sailari izaera zabalgarria emanaz eskuratzen dira, gastu kreditua sortzen duten urbanizazio-kuotek eragindako sarrerei kopuru berarekin lotuz. Honela, bada, 2010eko inbertsioen hasierako aurrekontuak obra honetarako 200 euroren diru-izendapenak soilik aurreikusten zituen, 2,8 milioi euroan gehitu direnak kopuru horren zenbatekoan jabeei urbanizazio kuotak igortzean. Aurrekontua aldatzeko molde hau balia daiteke gastuaren edo lotutako diru-sarreraren zenbatekoa zalantzazkoa duten gastu partidetarako; kasu honetan, baina, ez dirudi egokia denik hori erabiltzea, izan ere, bi obra horien esleipenak sortzen dituen konpromisoak urteanitz-gastu modura erregistratu behar dira kontularitzan eta horiek finantzatzeko sarrerak ere urteanitzekoak dira.
- 2010erako aurrekontuko diru-izendapenak hirukoiztu egin ziren txertatutako geldikinak handiak izan zirelako eta aurreko paragrafoan aipatu ditugun kredituen zabalkuntzagatik, batik bat, Kurutzeko industri unearen urbanizazio lanek eragindakoak. Egitasmo honek sortuko zituen sarrera eta gastuak 2010erako aurrekontuaren aurreikuspenetan barne hartu behar ziratekeen.
- 2010eko Aurrekontuaren likidazioa 2011ko maiatzaren 17an onetsi zen; araudiak, ordea, urtearen lehenengo hiruhilekoan onetsi behar dela agintzen du. Berebat, Kontu Orokorra uztailaren 31 baino lehenago onetsi behar da eta 2011ko irailaren 28ra arte atzeratu zen.

III.2. LANGILERIA

- Lanpostu Zerrendak funtzionarioen lanpostuei dagozkien ordainsariak zehazterakoan, toki sektoreko hitzarmenaren ordainsari maila adierazten du (Udalhitz), lanpostu bakoitzari dagokion lanpostu-mailako osagarria eta berariazkoa bereizi beharrean (EFPLren 15.2 art.). Langileen ordainsariak kitatzerakoan ere ez dira legez aurreikusitakoari jarraiki xehatu ordainsari kontzeptuak.

III.3. TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

- Udalak 2010ean udalerriko jaiak antolatzeko 49.907 euroren laguntzak eman zizkien modu zuzenean 2 elkarteri; egokiagoa zatekeen aurrekontuan izendapena izenez jasotzea. Gainera, zaindariaren jaiak antolatzeko diru-laguntzak emateko ebazpenak, 49.907 euroren zenbatekoan, ez zituen gastuak justifikatzeko epeak ezartzen. Laguntzak jaso zituzten bi elkarteek aurkeztutako agirietan guztira 10.227 euroren zenbatekoa egiten duten geldikin positiboak egon direla jakinarazi da; kasu batean, datozen



ekitaldietarako baliatuko da eta bestean, defizitarioa izan zen beste diru-laguntza baterako.

Justifikatzeko epeak ezarri behar dira eta aurreikusitako helbururako erabiltzen ez diren diru-laguntzak itzuli egin behar dira.

- Kultur eta kirol jardueretarako laguntzak 1996an onartu eta argitaratu zen ordenantza batek arautzen ditu eta ez dira nahitaezkoak diren urteroko deialdiak gauzatzen. Ordenantzak irizpide orokorrak ezartzen ditu laguntzak banatzeko eta horien haztapena ere ez da 2010eko urteko programetarako laguntzen espedientean xehatzen, 66.918 eurokoa dena (12 erakunderi diru-laguntzak, 1.368tik 16.250 eurora bitartean, eskatutakoaren gainean % 13 eta % 100 bitartean). Aurkeztutako aurrekontuek ez zituzten diru-sarreraren aurreikuspenak barne hartzen hiru kasutan eta eskatzaileetarik bederatzik ez zituzten gizarte eta/edo zerga obligazioetan eguneratuta zeudelako ziurtagiriak aurkeztu.

5 erakunderen kontu justifikagarriak aztertu ditugularik, guztiek aurkezten dituzte gauzatutako gastua egiaztatuko duten agiriak, baina 2k ez dute sarrera eta gastuen zerrendarik aurkezten eta beste batek, gastuen zerrenda soilik aurkezten du. Gastua justifikatzeko jaso izanaren agiriak barne hartzen dituzte, nahitaezko diren ordainagiriak edo agiri baliokideak aurkeztu beharrean. Honez gain, elkarteetako batek aurkeztutako justifikazioan, udalerriko bi auzoetako jaien batzordeei egindako 11.770 euroren ekarpenak barne hartu dira; laguntza horiek Udalak eman behar zituzkeen. Gauzatutako jardueri dagokienez, erakundeetako batek soilik aurkeztu zuen egiaz gauzatutako ekintzen oroi-idatzia.

- Arautegiak agintzen du iragarki ohoetan argitaratu behar direla diru-laguntzen emakida ebazpenak, banako laguntzak 3.000 eurotik gorakoak direnean (DLOren 18. art.); Udalak ez du betekizun hori betetzen.
- Udalak hainbat zerbitzu ematen ditu Txorierriko Mankomunitatearen bitartez eta urteko aurrekontua abiaburu hartuta, ekarpenak kalkulatu ditu; ordea, doitu egin behar litzateke exekuzioaren egiazko datuak eta aurreko urteetako geldikinak aintzat hartuta.

III.4. KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 7 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azalerratu zaizkigu (ikus A.11):

Espedientea eta esleipena

- Guztira 7,3 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 5 kontraturen pleguek (1, 2, 5, 6 eta 7 espedienteak) merkatze ehuneko batetik behera eskaintza ekonomikoenak zigortzen dituzten formula aritmetikoak barne hartzen dituzte.

- Guztira 7,3 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 5 kontratutan (1, 2, 5, 6 eta 7 espedienteak) pleguan eta/edo txosten teknikoan esleipen irizpide modura balioztatu dira kontratu-gai den obra edo zerbitzuaren funtzionaltasunarekin zerikusirik ez duten alderdiak. Hiru kasutan udalerriko langile langabetuak kontratatzea balioztatzen da eta beste bitan lehiatzaileek kalitateari buruzko ziurtagiria izatea. Gainera, aurreko kasuetatik hirutan makinaria eta baliabide lagungarriak eskura jartzea eta kontratuari atxikitako langileen gaitasuna balioztatzen da; irizpide hori erabilgarria da baldin eta alde zuzenetik kontratua gauzatzeko ezinbesteko diren haiek zehazten badira eta zehaztasunez definitzen badira kontratugileak ekartzeko konprometitu dituen baliabide osagarrien balorazioak.
- Halaber, 3 kontraturen pleguek (1, 3 eta 7 zk. esp.), 677.315 euroan esleitutakoak, balorazio irizpidetzat hartzen dituzte gehitutako hobekuntzak, lehiatzaileei aurkeztutako proposamenak puntuatzeko erabili beharreko balio-etaula zein den adierazi gabe.
- SPKLk araututako 3 kontratutan, 1,6 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak (4, 6 eta 7 zk. esp.), zenbatesteko balio-judizioa behar duten irizpideen pisuak % 50a gainditzen zuen. Halakoetan arautegiak aditu askeen batzordea osatzeko agintzen du, formula bidez zenbatetsi daitezkeen irizpideak baino lehenago balioztatzeko; ordea, Udalak ez zituen betekizun horiek bete.
- Hiru esleipenen txosten teknikoek (4, 6 eta 7 zk. esp.), 1,6 milioi euroren zenbatekoa egin zutenak, puntuazio xehatuak jasotzen zituzten, baina ez zituzten emandako puntuak justifikatzen.
- Bi esleipen ebazpeni ez zitzaion zegoen publikitate eman kontratugilearen profileen (3 eta 4 zk. esp.), guztira 191.800 euro egin zituztenak. Bigarren kasua, gainera, BAO argitaratu behar zatekeen (SPKLren 138. art.).
- Guztira 5,5 milioi euroan esleitutako obra kontratu baten pleguak, gauzatzeko 14 hilabeteko epea aurreikusia zuena, bestelako zehaztasunik batere eman gabe prezioak ez zirela berrikusiko zioen; alabaina, arautegiak halakoetan hori egiteko desegokitasuna arrazoitzeko eskatzen du (APKLTBren 103.3 art.).

Gainera, esan behar dugu Udalak ez dituela obra egitasmoak gainbegiratzen, nahitaezkoa dena (APKLTBren 128. art. eta SPKLren 109. art.).

Exekuzioa eta harrera

- Aztertutako hiru obren Segurtasun eta Osasun Plana, 7 milioi euroren zenbatekoan egindako esleipenei zegokiena, ez zuen kontratazio atalak onetsi.
- Bi obra kontratutan, 1,5 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak, exekuzioa betetzeko epea baino haratago luzatu da, epe horretarako luzapenik batere gauzatu gabe (SPKLren 196. artikulua). Kasu batean exekuzio epea 2010eko ekainean amaitzen zen eta 2011n ziurtagiriak igortzen segitzen zen, betetzeko epearen luzapena gauzatu gabe. Beste kasu batean, 7 zk. kontratutan, obrak 2009ko abenduan amaitu behar zutekeen eta harrera akta hurrengo urteko martxoan gauzatu zen.



- 5 zenbakiko kontratua aldatu izanaren ondorioz, 0,4 milioi euroren zenbatekoan, ez zitzaion kontratugileari bermea gehitzeko eskatu, nahitaezkoa zena.

Berariazko akatsak

- 1 zk. kontratua 2007an bi urtetarako 0,1 milioi euroren zenbatekoan esleitu zen; ordea, 2009 eta 2010eko luzapenak ez ziren gauzatu.
- 0,2 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 2 eta 3 zk. zerbitzuen kontratuetan, hileroko ziurtagiriak izapidetzen dituenean Udalak ez du egiaztatzen kontratugilea Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan eguneratua dagoela.
- 5 z5 zenbakiko espedientearen eraikuntza proiektuak ez zuen dagokion azterketa geoteknikorik eta gerora eskatuko da, 2009ko ekainean onetsitako aldakuntzan.
- 5 zenbakiko espedientearen azken bi aldakuntzak industri uneko eremu bat kutsatua zegoelako egin behar izan ziren eta ondorioz, 2009ko uztailan EAEk lanak zati batean eten egin behar izan zituen; berebat, kutsatutako lurak kontrolpeko isurtegiatar eramateko eta ibai baten ibilgua saihesteko obra osagarriak egiteko agindu zuen. Lurren garraioa Udalak urbanizazio lanen kontratugileari agindu zion eta proiektuaren bigarren aldakuntza 2010ean izapidetu zuen. Lan osagarriek 2011n beste aldakuntza bat eragin zuten; hori, baina, ez da oraindik gauzatu EAEk onespena eman behar duelako. Era honetara, kostu gehigarri hauek urbanizazioak eragindako zama modura txertatzen dira, nahiz arautegiak aukera hau ordezkotza izaerarekin aurreikusten duen, kutsaduraren eragilea identifikatzea ezinezkoa bada soilik, EAEk erabaki beharreko prozedura baliatuta (Lur eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 147.3 art.). Udalak 2009ko abuztuan Zamudioko Udalarari jakinarazi zion (birzatatzea egin ondoren eraginpeko lursailaren jabea) lurzorua kutsatua zegoela eta Zamudioko Udalak lurren aurreko jabeari kutsatutako lurrek eragindako kostuak ordaintzeko eskatu zion. Eskaerari erantzun ez zitzaionez gero, kostu hauek urbanizazio proiektuari txertatu zitzaizkion. Alabaina, egokiagoa zatekeen alde aurretik EAE estutzea erantzukizunak muga zitzan.

III.5. BESTELAKO ALDERDIAK

- Ondasunen zerrendaren azken eguneratzea 2004koa da, arautegiak urtero gaurkotu behar dela dioen arren.



IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua. Konparazio ondorioetarako, 1.001 eta 5.000 biztanle bitarteko (geruza honetan baitago udala) Bizkaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalen batez bestekoen 2009ko ekitaldiari buruzko datuak barne hartu dira (eskuragarri dauden azken datuak).

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko			Erref. 2009	
	Urtea			Urtea			Bizk	EAE
	08(*)	09(*)	10	08	09	10		
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	764	1.063	868	313	431	347	524	510
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (kap. 4).....	1.866	1.564	1.174	764	634	469	715	658
Ondare sarrerak (5. kap.).....	119	44	25	49	18	10	30	25
A. Diru-sarrera arruntak	2.749	2.671	2.067	1.126	1.083	826	1.269	1.193
Langileria gastuak (1. kap.).....	519	537	524	212	218	210	357	346
Ondasun arruntan erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	953	892	767	390	362	307	622	568
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	643	707	656	263	287	262	181	167
B. Funtzionamendu gastuak	2.115	2.136	1.947	865	867	779	1.160	1.081
Aurrezki gordina (A-B)	634	535	120	261	216	47	109	112
- Finantza gastuak (3. kap.).....	-	89	-	-	36	-	14	14
Emaitza arrunta	634	446	120	261	180	47	95	98
-Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	-	-	-	-	-	-	63	62
Aurrezki garbia	634	446	120	261	180	47	32	36
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	42	4.016	2.804	17	1.629	1.121	92	67
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	219	616	411	90	250	164	462	421
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	1.279	4.546	3.479	524	1.844	1.391	785	711
- Kapital transf. eta diru-lag. (7. kap.).....	-	1	-	-	-	-	30	34
Kapitalezko eragiketen emaitza	(1.018)	85	(264)	(417)	35	(106)	(261)	(257)
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.).....	(384)	531	(144)	(156)	215	(59)	(165)	(159)
Diruzaintza Geldikin Likidoa.....	1.516	1.851	2.233	621	751	893	495	417
12.31n zorpetzea.....	-	-	344	-	-	138	323	420

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Iturria: Toki Erakundearen Kontuei buruzko HKEEren 2009ko txostena. "Bizk." eta "EAE" erreferentziak, 1.001 eta 5.000 biztanle bitartean dituzten Bizkaia eta EAEko udalen datuei dagozkie.

Sarrera arruntak: 0,6 milioi euro egin dute behera 2008 eta 2010 urteen artean; gainera, jokamolde ezberdina izan dute zerga sarrerak (1etik 3ra bitarteko kapituluak) eta beste administrazio batzuetatik eratorritakoek (4. kapituluak).

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** Osagai guztiek igoera oso txikiak izan dituzte, 2009an zergen tarifak igo ez direlako, Ibilgailuen Zerga salbuespen dela (% 4,7). Urte horretan hirigintza kudeaketako gastuen itzulketa dela eta, ohikoak ez diren diru-sarrerak izan dira eta horrexegatik gertatu da ekitaldi horren goititzea.
- **Transferentziak eta diru laguntzak:** 0,7 milioi euroan egin dute behera aztergai dugun aldian, izan ere, 2010eko aurrekontuari Udalkutxaren aurreko urteko likidazioa ezarri zaio (0,3 milioi euro); honela, bada, 2010eko urteak jasan zituen 2009koa itunpeko



zergen dirubilketan hirurtekorik txarrena izatearen ondorioak. Honi dagokionez, 2010eko likidazioak kontzeptu honen izenean Udalaren aldeko dirusarrerak 1,5 milioi euroan finkatzen zituen, ekitaldi horretan kontabilizatutako diru-sarrerekiko 0,4 milioi euro handiago.

Funtzionamendu gastuak: 0,1 milioi euro murriztu dira 2008 eta 2010 bitartean, beheraldia azken urte honetan izan duela.

- Langile kostuek ez dute aldaketarik izan, bada, 2009an zertxobait gora egin zuten 2010ean berriz behera egiteko. Honi dagokionez aipatzekoa da 8/2010 LED, udal langileen ordainsariak % 5 jaitsarazi zituena 2010eko ekainaren 1etik aurrera. Murrizketa honek Udaltaldeak 2009 eta 2010erako finkatu zituen igoerak berdindu zituen, hurrenez hurren, % 2,4 eta 1,8koak izan zirenak.
- Ondasun arrunten erosketek % 0,2 egin zuten behera, askotariko gastuak atalean nagusiki.
- Transferentzia eta diru-laguntzen kapituluari dagokionez, Txorierriko Mankomunitateari 2010ean egindako 0,5 milioi euroren ekarpenek ez dute bariazio adierazgarririk izan eta honenbestez, gastuen kapitulu honek bere horretan eutsi dio.

Aurrezki gordina: Aurrezki Gordinaren beheraldia % 16koa izan da 2009an eta % 78koa 2010ean; honela, bada, aztergai izan dugun hirurtekoan 0,6 egitetik 0,1 milioi eurokoa izatera aldatu da, sarrera arrunten % 6. Eragiketa arruntetan aldaketarik nagusia itunpeko zergen dirubilketan partaidetzak egin duen beheraldia izan da, 2010ean 2009ko likidazio negatiboaren ondorioz areagotu dena; aipatzekoa da gainerako osagaiek izan duten portaera ona, zerga sarrerek arin egin baitute gora eta gastu orokorrari eutsi baitzaio.

Aurrezki garbia eta zorpetzea: Aurrezki Garbia, maileguren interes eta amortizazioei aurre egin ondoren Udalaren eragiketa arruntek sortzen duten hura da. Zorpetzeari dagokionez, zorraren zenbatekoak hirukoiztu egiten du ia 2010eko aurrezki garbia, nahiz ekitaldi bereko sarrera arrunten % 17a egiten duen.

Kapitalezko eragiketen emaitza: Kurutzeko industri unea urbanizatzeko lanek 5,9 milioi euroren inbertsioak sortu dituzte hirurtekoan; kopuru horiek jabeen eragin zaizkie eta 6. kapituluaren 6,9 milioi euroren dirusarrerak sortu dira. Berebat, Toki Inbertsiorako Estatuko Funtzak finantzatu dituen lanak ere aipatu behar dira, 2009an eta 2010ean guztira 0,7 milioi euro egin dutenak.

Diruzaintza geldikina: Geldikina 0,7 milioi euroan gehitu da aztertutako aldirian. Diruzaintza Geldikina 10.12.31n finantzaketa desbideratzeekin murriztu behar da (nagusiki, Kurutzeko industri uneko lanek eragindakoak) eta 1,1 milioi euro gelditzen da erabilgarri, kopuru adierazgarria dena (sarrera arrunten % 60).



Ondorioa: Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikinak eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa.

Lezamako Udalean sortutako aurrezki garbia nabarmen murriztu da 2008-2010 aldian itunpeko zergen diru-bilketak behera egin izanaren ondorioz; zerbitzu kostuei, berriz, bere horretan eutsi zaie; itunpeko zergetan toki administrazio guztiek hartzen dute esku. Aztertutako hirurtekoan Udalak inbertsio arruntak emaitza arrunten eta diru-laguntzen bidez finantzatu ditu (Kurutzeko industri unearen urbanizazioa salbuetsita). Geldikinak kopuru adierazgarria du 10.12.31n eta zorpetze-maila garrantzi txikikotzat hartu behar da. Horregatik guztiagatik, Udalak zerbitzuek eragiten dituzten kostuen gainean esku hartzen jarraitu behar du; epe laburrera, berriz, inbertsioak finantzatzeko geldikina eta diru-laguntzak eskuratzeko aukera du.

2011rako aurrekontuak eragiketa arruntetan superabit txiki bat aurreikusten du (0,2 milioi euroren zenbatekoa), itunpeko zergen partaidetzako zenbateko handiagoak eragindakoa, ondasun eta zerbitzuen erosketan aurreikusitako igoerak finantzatzeko dituen, izan ere, langile gastuak eta transferentzia eta diru-laguntzak 2009ko aurrekontuaren egikaritzak izan zuen kopuru berarekin jaso dira aurrekontuan. Eragiketa arruntetan aurreikusi den superabita Udalkutxaren 2009ko likidazioagatik zor denaren lehenengo mugaegunari (0,1 milioi euro) eta inbertsio programari -2009an hitzartu zirenetara mugatu dena- aurre egiteko baliatuko da .



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

2010-EKO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	AURREKONTUA				ESKUBIDE.		KOBRA.		%
	ERANSK.	HASIER.	ALDAK.B.-BETIK.		KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.	
1.- Zerga zuzenak	A.3.	385	-	385	444	433	11	115	
2.- Zeharkako zergak	A.3.	60	-	60	187	187	-	312	
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.3.	270	-	270	237	233	4	88	
4.- Transferentzia arruntak	A.4.	1.488	95	1.583	1.174	1.157	17	74	
5.- Ondare sarrerak	-	41	-	41	25	25	-	61	
6.- Inbertsio errealen besterentzea	A.7.	-	2.804	2.804	2.804	2.506	298	100	
7.- Kapitalezko transferentziak	A.4.	11	381	392	411	359	52	105	
8.- Finantza aktiboak	-	-	1.624	1.624	-	-	-	-	
9.- Finantza pasiboak	A.4.	-	-	-	344	344	-	-	
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		2.255	4.904	7.159	5.626	5.244	382	(*)102	

(+) Exekuzioaren ehunekoa kalkulatzekoan Diruzaintza Geldikin bidez finantzatzearen eragina zuzendu da.

GASTUAK

1.- Langileria-gastuak	A.5.	543	60	603	524	513	11	87
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb.	-	988	85	1.073	767	710	57	71
3.- Finantza gastuak	-	-	-	-	-	-	-	-
4.- Transferentzia eta diru-lag. arrunt.	A.6.	671	-	671	656	651	5	98
6.- Inbertsio errealak	A.7.	53	4.759	4.812	3.479	3.478	1	72
7.- Kapital transf. eta diru-lag.	-	-	-	-	-	-	-	-
8.- Finantza aktiboak	-	-	-	-	-	-	-	-
9.- Finantza pasiboak	-	-	-	-	-	-	-	-
GASTUAK GUZTIRA		2.255	4.904	7.159	5.426	5.352	74	76
SARRERAK - GASTUAK					200			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIER.		KOBRA./		AZKEN
	ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA	
Zordunak	1.355	-	735	620	
Hartzekodunak	516	-	510	6	
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA					

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

Kitatutako eskubideak	5.626
Aitortutako obligazioak	5.426
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETA AURREKONTUZKOEN EMAITZA	200
AURREKO EKITALD. KITATUTAKO AURREKONTU ERAGIKETEN EMAITZA	-
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	200
Finantzaketa desbideratzeak	-56
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak	360
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	504



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikin likidoa 10.1.1ean	1.850
Aurrekontuaren emaitza	200
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldatetak	183
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 10.12.31-N	2.233
Diruzaintza	2.638
Aurrekontuko zordunak	1.002
Aurrekontuz kanpoko zordunak	597
Aurrekontuko hartzekodunak	80
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	1.860
Kaudimengabeziatarako zuzkidura	64
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 10.12.31-N	2.233
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina	1.091
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA	1.142
ZORPETZEA 10.12.31n (A.4 eranskina)	344



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2010-EKO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	10 URTEA	09 URTEA	PASIBOA	10 URTEA	09 URTEA
IBILGETUA	19.262	15.782	FUNTS PROPIOAK	21.151	17.633
Erabilera orokorrerako azpiegiturak...	14.568	11.125	Ondarea	695	695
Ibilgetu ezmateriala.....	1.011	978	Erabilera orokorrerako ondarea.....	16.938	12.057
Ibilgetu materiala	3.683	3.679	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	-	-
Ibilgetu finantzarioa	-	-	Galdu-irabaziak.....	3.518	4.881
ZORDUNAK	1.509	1.663	HARTZEKODUNAK EPE LUZERA	229	-
Aurrekontuzkoak.....	1.002	1.356	Sekt. publi.-Udalkutxa 2009 gerorap.....	229	-
Aurrek. kanp.: BEZ.....	571	554			
Kaudimengabeziatarako zuzkidura....	(64)	(247)			
			HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA	2.055	2.469
			Aurrekontuzkoak.....	80	516
			Aurrek. kanp. Kurutzeko urbaniz. kuotak...	1.761	1.896
FINANTZA KONTUAK	2.664	2.657	Erakunde Publiko hartzekodunak	23	26
Diruzaintza	2.638	2.657	Sekt. publi.-Udalkutxa 2009 gerorap.....	115	-
Bermeak eta gordailuak e/lab.....	26	-	Aurrek. eragin gabeko berme eta sarr.	76	31
AKTIBOA GUZTIRA	23.435	20.102	PASIBOA GUZTIRA	23.435	20.102

2010-EKO EKITALDIAREN GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

GASTUAK	10 URTEA	09 URTEA	SARRERAK	10 URTEA	09 URTEA
Langileria-gastuak.....	531	553	Negozio zifraren zenbateko garbia.....	207	194
Amortizaziorako zuzkidura.....	-	-	Zerga zuzenak	444	476
Kaudimengab. zuzkid. aldak.	(183)	196	Zeharkako zergak	187	60
Kanpoko zerbitzuak	760	877	Jasotako transf. eta diru-lag.	1.585	2.180
Tributuak	-	-	Kudeaketako beste sarrera batzuk	2.855	4.370
Emandako transf. eta dirul. arruntak.	656	707			
USTIAPENAREN MOZKINA	3.514	4.947			
Finantza gastuak.....	-	89	Finantza sarrerak.....	4	23
FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK	4	-	FINANTZA EMAITZA NEGATIBOAK	-	66
AURREKO EKITALDIETAKO MOZKINAK	-	-	AURREKO EKITALDIETAKO GALERAK	-	-
EKITALDIKO MOZKINA	3.518	4.881			





LEZAMAKO UDALARI DAGOKION 2010EKO FISKALIZAZIO TXOSTENAREN ONDORIOEI EGITEN ZAIZKIEKIN ARRAZOIBIDEAK.

II. IRITZIA

II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA

1go. paragrafoa:

Txostenak hala dio:

- 1 La Cruz poligonoko urbanizazio-obra (5. espediente) 5,5 milioi euron esleitu ziren eta hiru aldiz aldatu ziren 1,7 milioi euro (hasierako zenbatekoaren %31) gehiago gastatzeko. Bere zenbatekoaren garrantziarengatik kontratazio-araudiaren lizitazio-printzipioak urratzen dira, bai kontratuaren xedeak, bai kontratuaren bolumen ekonomikoak ere izaera aldatuta baitute. Gainera, bigarren aldaketa, 296.691 euron esleitura, obraren aurrekontua gehitu gabe eta zegokion aurrekontu-aldaketa onartu barik izapidetu zen.

Alegazioa:

LA CRUZ poligonoko urbanizazio-proiektua, xede horretarako zehaztutako legezko prozeduraren bitartez idatzi eta izapidetu ondoren, nahasiak dauden bi Udalek onartu zuten, poligonoa Lezamako eta Zamudioko udalerrien lursailetan baitago.

Urbanizazio Proiektua Lezamako Udalak 2003ko urriaren 23ko Dekretuaren bidez eta Zamudioko Udalak 2003ko irailaren 24ko Dekretuz onartu zuten.

2006.urtean Urbanizazio Proiektuaren aldaketa tramitatu eta onartu zen.

Lehiaketa publikoan LA CRUZ ABEEri esleitu ostean, LA CRUZ sektorearen urbanizazio-obra gauzatzen hasi eta gutxira, titulartasun publikoko bide nagusia kokatzeko hondeaketa-lanak egiten ari zirenean, lur poluituak aurkitu ziren eta, ondorioz, poluzioa azaldu zen puntuan obra gelditu ziren.

Gelditutako urbanizazio-obra egiten jarraitzeko baimena lur poluituak kendu eta zabortege kontrolatura eraman ondoren lortu zen. Horrez gain, poligonoan zehar doan ibai-ibilgua ez poluitzeko obra osagarriak egin behar izan ziren. FMC FORET SA merkataritza-entresaren titulartasuneko partzelan oraindik lur poluituak daudelako egin zen. Hain zuzen ere, partzela horretatik dator lagatako lurzoruen poluzioa.

Hasieran, Zamudioko Udala FMC FORET SA merkataritza-entresarekin harremanetan jarri zen eta lur poluituak bildu eta zabortege kontrolatura eramatearen gastuak egotziko zitzaizkiola jakinarazi zitzaion, hautemandako poluzioaren titularra eta sortzailea zen neurrian. Eske hori FMC FORET SA merkataritza-entresak ezetsi zuen eta bere adostasunik eza epaitegiara eraman zuen. Hala, Zamudioko Udala Bilboko 2. Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean izapidetutako 1002/10 administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ebaztearen zain dago.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, eta, zehatz-mehatz esanda, 147.3. artikulua xedatutakoaren eta aurrez ikusitakoaren babesean, lurzoru poluituak berreskuratu eta moldatzea urbanizazio-kargan sartu behar ziren eta zenbatekoa poluzioa sortu zuen pertsona fisiko edo juridikoari, hau da, FMC FORET SA merkataritza-enpresari egotzi behar zitzaion, Lurzoru Poluituak Prebenitu eta Zuzentzeko 1/2005 Legeak xedatutakoaren arabera.

Urbanizazio-obrekin aurrera egin eta horiek amaitzeko premia zegoen, hirugarrenei eta jabeen nahiz finka garbien titularrei egiten ari zitzaion kalte ezeztatzeko. Horregatik, administrazio jarduleak poluzioa kentzea eta lursailak moldatzea bere gain hartu zituen. Kostua urbanizazio-kargatzat jo zuen eta birpartzelazio-komunitateak onartu zituen, behin-behineko kitapen-kontuaren kargura, obligaziodun pertsona arduradunaren kontura. Hots, birpartzelazio-komunitatearen kargura onartu zen, ondoren, obligaziodun pertsonari edo, hori izan ezean, lursailen titularri (FMC FORET SA merkataritza-enpresari) jasanarazteko.

Hasierako esleipena kontuan hartuta egindako aldaketak 1,7 milioi eurokoak izan dira eta horietatik %58 poluzioa kentzeari dagozkio. Nolanahi ere, gastu hori FMC FORET SA enpresari egotzi behar zaio. Zenbateko hori alde batera utzita, hasierako esleipenarekiko %15 gehiago ordaindu da.

Egia da arintasun hori ez dela lortu, gaur egun urbanizazioa oso-osorik amaituta baitago, poluzioak eragindako zatian izan ezik. Izan ere, CAEk egin beharreko lanak baimendu behar ditu.

Lurrak zabortege kontrolatura eramatea LA CRUZ ABEEri eskatu zitzaion, premia eta arintasuna bilatuz eta LA CRUZ ABEE bitartekoekin lursailean zegoelako.

II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA

2.paragrafoa:

Txostenak hala dio:

Hilario Astorki plazaren urbanizazioari (2. fasea) dagokion azken ziurtagiriak, 429.621 euron esleitutakoak, obra berriaren unitateak ditu, hain zuzen ere, proiektuak aurrez ikusiak ez zituenak eta zenbatekoa 85.286 eurokoa da. Horiek zegozkion aldaketak izapidetuz berariaz onartu ziren.

Alegazioa:

Hilario Astorki plazaren II. fasea urbanizatzeko oinarri bezala erabili den proiektua eta sinatzen duen arkitektoak egin eta baliozkotu dituen ziurtagiriak aztertu ondoren, ustekabeko partidak izan direla baieztatu dezakegu eta, ondorioz, kontratak prezio kontraerriak aurkeztu ditu.



Ustekabeko partidak ondorengoak dira:

- 1.- Udalaren atzeko aldean jardinera egitea eta, horretarako, bertikalean eta zolataren azpian ahokatuak trenbide-trabesak jartzea.
- 2.- Lauzak piezakatzeko hormigoizko zoladuraren gainean ebaki linealak egitea.
- 3.- Udalaren atzeko aldean zabaldu den espaloian, Bilbo motako baldosaren bitartez zoladura gauzatzea.
- 4.- Zenbait zuhaitz-espezie (hala nola banbua, denboraldiko lorea eta estaltzeko landareak) landatzea.
- 5.- Oxiron izenekoa hiru aldiz ematez, plazan instalatuta dauden hiru pergolen egiturak margotzea.
- 6.- Udalaren sarreran granitozko mailak burutzea.
- 7.- Udalaren atzeko aldean hormigoizko zoladura inprimatua bukatzeko granitozko zokalo-zintarria egitea.
- 8.- 8 mm-ko polipropilenoazko plaka zelularraz hornitu eta hori jartzea, proiektuan 6 mm-koa definituta baitzegoen eta jada ez baita fabrikatzen.
- 9.- Pergoletan inguruko hodiaz hornitu eta hori instalatzea, petralen ertza ezkutuan gelditzeko.

Partida horiek guztiak ez zeuden proiektuan edo proiektuak aurrez ikusitakoen ordean erabili dira. Azkeneko kasuan, proiektuan definitutako partidaren zenbatekoa kendu da, baina obran gauzatu behar zirela baieztatu zen.

ABEEk eta Udalak sinatutako kontratuaren ondorioz, Loroño S.A. eta Urbelan S.A. ABEEekin kontratatutako zenbateko guztia 429.621,49 eurokoa da.

Neurketak gehitu direlako eta proiektuan sartu gabe arestian aipatutako partidak gauzatu direlako, obraren kitapena 515.278,40 eurokoa izan da, beraz, %19,93 gehiago gastatu da, obraren esleipenarekin alderatuz.

Prezio kontrajarri guztiak kontratak obren zuzendaritza eskudunari proposatu dizkio eta azkenekoak obra egin baino lehen onartu ditu.

II. 2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

2. paragrafoarekiko alegazioa

Informek dio:

“2.- 2010eko abenduaren 31ko gastu orokorretarako Diruzaintzaren Soberakinari, data horretan itxitako Egoera Balantzeari eta Udalaren Funts Propioei eragiten dioten doitzak hurrengoak dira:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Kontzeptua	Aurrekontuko Diruzaintza geldikina	Euroak milakotan		Funts Propioak
		Aktiboa	Ondarekoa Pasiboa	
10.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak				
A.3 Zaborrak jasotzeko tasa, 2010eko 3. eta 4. hiruhilekoa	-	73	-	73
A.4 Udalkutxaren 2010eko likidazioa.....	-	77	-	77
10.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko obligazioak				
- Hainbat zerbitzuren ordainagiriak, 2010ean sortu eta 2011n erregistr.	(52)	-	52	(52)
Beste batzuk				
A.7 Kurutzeko industri unearen hirigintz. aprobetx.	1.229	-	(1.229)	1.229
GUZTIRA	1.177	150	(1.177)	1.327

Alegazioak:

Sortu baina 10-12-31n erregistratu gabeko eskubideengatik doitzea:

Zaborraren bilketa-tasari dagokionez, Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoak kudeatzen du tasa hori.

10-12-31n eskubide horiek ez daude erregistratuak Partzuergoak kitapenak hiru hilez behin egiten baititu; ildo horri jarraiki, ekitaldiko otsaila eta maiatzera arte Udalak aurreko ekitaldiko hirugarren eta laugarren hiruhilekoei buruzko informazioa ez du ezagutzen.

Era berean, zerga hitzartuen diru-bilketan (Udalkutxa) udal-partaidetzaren behin betiko kitapena, kasu honetan, 2011ko martxora arte ez da ezagutzen.

La Cruz poligonoan hirigintza-aprobetxamenduarengatik doitzea:

Lezamako Udalak ez zuen arrazoizkotzat jo La Cruz industria-poligonoko hirigintza-aprobetxamenduak aurrekontuari aplikatzea, zenbateko guztia ez baita jaso.



0. ABREVIATURAS

BOB	Boletín Oficial de Bizkaia.
BOE	Boletín Oficial del Estado.
CAE	Comunidad Autónoma de Euskadi
DOUE	Diario Oficial de la Unión Europea.
LCSP	Ley 30/2007, de Contratos del Sector Público.
LFPV	Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca.
LGS	Ley 38/2003, General de Subvenciones.
LRBRL	Ley 7/1985, Reguladora de las Bases del Régimen Local.
RBEL	Real Decreto 1372/1986, Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.
RD 1627/97	Real Decreto 1627/1997 disposiciones mínimas de seguridad y salud en obras
RDL 8/2010	Real Decreto-ley 8/2010 de medidas extraordinarias para reducir el déficit público
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
TRLCAP	Real Decreto Legislativo 2/2000, Texto refundido Ley de contratos de las Administraciones Públicas.
TRLET	Real Decreto Legislativo 1/1995, Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores.
Udalhitz	Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo de las instituciones locales vascas.





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (en adelante, TVCP), de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Programa de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Ayuntamiento de Lezama del ejercicio 2010.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legalidad: Revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, ingresos de derecho público, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, y concesión de subvenciones.
- Financiero: Conformidad de la Cuenta General con los principios contables que le son aplicables. La Cuenta General contiene el balance de situación, la cuenta de pérdidas y ganancias, memoria y Liquidación de los presupuestos del Ayuntamiento y de sus Organismos Autónomos.
- Análisis financiero de la situación económica del Ayuntamiento.
- Otros aspectos: El alcance del trabajo no ha incluido un análisis específico sobre la eficacia y eficiencia del gasto ni sobre los procedimientos de gestión del Ayuntamiento. No obstante, los aspectos parciales que han surgido en la fiscalización están comentados en el epígrafe III de este Informe.

El municipio de Lezama, con una población de 2.501 habitantes según padrón municipal a 1 de enero de 2010, forma parte de la Mancomunidad de Servicios del Txorierri y del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia.

II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

CONTRATACIÓN (ver A.11)

- 1.- Las obras de urbanización del polígono La Cruz (expediente. número 5) adjudicadas en 5,5 millones de euros, fueron objeto de tres modificaciones por importe de 1,7 millones de euros, un 31% del importe inicial, que por la importancia de su cuantía transgreden los principios licitatorios de la normativa de contratación, al desnaturalizar tanto el objeto contractual como el volumen económico del contrato. Además, el segundo de los modificados, adjudicado por importe de 296.691 euros, se tramitó sin incrementar el presupuesto de la obra y sin aprobar la correspondiente modificación presupuestaria.
- 2.- La certificación final de la urbanización de la plaza Hilario Astorki (fase 2), obra adjudicada en 429.621 euros, incluye unidades de obra nuevas no contempladas en el proyecto por 85.286 euros que debieron ser aprobadas expresamente tramitando la correspondiente modificación.

En opinión de este Tribunal, excepto por los incumplimientos descritos en los apartados 1 y 2 anteriores, el Ayuntamiento de Lezama ha cumplido razonablemente en el ejercicio 2010 la normativa legal que regula su actividad económico-financiera.

II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES

El capítulo 4 de ingresos de la Liquidación adjunta incluye ingresos por la participación municipal en la recaudación de los tributos concertados (Udalkutxa) por importe de 1,1 millones de euros, correspondientes a las entregas a cuenta de la liquidación final del año 2010 por 1,5 millones de euros y a la liquidación negativa del año anterior por 344.039 euros. Este último importe fue contabilizado también como ingreso del capítulo 9 para registrar el aplazamiento de pago acordado por el Consejo Territorial de Finanzas de Bizkaia de 19 de febrero de 2010 que establece su devolución en 36 vencimientos mensuales iguales a partir de enero de 2011. Dicho acuerdo establecía también la aplicación de posibles liquidaciones positivas a minorar del saldo adeudado, finalidad a la que se destinó en 2011 la liquidación positiva del año 2010 por importe de 76.828 euros.

- 1.- El Ayuntamiento revisó las valoraciones de su inmovilizado en el año 2000 y modifica los saldos globales de los distintos epígrafes con la información de la contabilidad presupuestaria. Sin embargo, no realiza un seguimiento que garantice el registro contable de todos los hechos económicos significativos que afectan a su inmovilizado y, en particular, no dispone de un detalle por elementos, ni registra los gastos de amortización del mismo. Por todo ello, no puede determinarse si los saldos del

inmovilizado reflejan la situación real de los bienes y derechos del Ayuntamiento a 31.12.10.

- 2.- Los ajustes que afectan al Remanente de Tesorería para gastos generales a 31 de diciembre de 2010, al Balance de Situación cerrado a esa fecha y a los Fondos Propios del Ayuntamiento son:

Concepto	Presupuestario Rte. de Tesorería	Miles de euros		
		Patrimonial		Fdos. Propios
		Activo	Pasivo	
Derechos devengados y no registrados a 31.12.10				
A.3 Tasas recogida basuras, 3er y 4º trimestre 2010.....	-	73	-	73
A.4 Liquidación 2010 de Udalkutxa	-	77	-	77
Obligaciones devengadas y no registradas a 31.12.10				
- Facturas de 2010 registradas en 2011 diversos servicios.....	(52)	-	52	(52)
Otros				
A.7 Aprovechamiento urbanístico polig. La Cruz.....	1.229	-	(1.229)	1.229
TOTAL	1.177	150	(1.177)	1.327

- 3.- A la fecha de este informe, existen contingencias que pueden afectar a las Cuentas del Ayuntamiento cuya cuantificación no es posible determinar, derivadas de recursos pendientes de sentencia firme a 31.12.10. El recurso más importante plantea una reclamación cuantificada en 441.271 euros (ver A.12).

En opinión de este Tribunal, excepto por las salvedades señaladas en los párrafos 1 y 2, y por los ajustes que pudieran ser necesarios si se conociera el desenlace final de los recursos judiciales citados en el párrafo 3, la Cuenta General del Ayuntamiento de Lezama expresa, en todos los aspectos significativos, la actividad económica del ejercicio 2010, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera a 31 de diciembre de 2010 y los resultados de sus operaciones en el ejercicio.

III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN

En este apartado se señalan tanto deficiencias que no afectan de manera relevante al cumplimiento de los principios que rigen la actividad económico-financiera, como aspectos procedimentales que se ponen de manifiesto para la mejora de la gestión.

III.1 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD

- Las consignaciones para financiar las obras de urbanización del polígono de La Cruz se obtienen asignando carácter de ampliable a la partida de inversiones correspondiente, poniéndolas en relación con los ingresos de las cuotas de urbanización que generan crédito de gasto por la misma cuantía. Así, el presupuesto inicial de inversiones de 2010 tan solo contempla consignaciones para esta obra por 200 euros, que se incrementan en 2,8 millones de euros al girar cuotas de urbanización a los propietarios por ese importe. Puede aplicarse esta modalidad de modificación presupuestaria para partidas de gasto con incertidumbre sobre la cuantía del gasto o de los ingresos asociados, pero en este caso no parece adecuada su utilización, al tratarse de dos obras cuya adjudicación genera compromisos que deben ser objeto de registro contable como gastos plurianuales y que se financian con ingresos también plurianuales.
- Las consignaciones del presupuesto para 2010 se triplicaron por la importancia de los remanentes incorporados y por las ampliaciones de crédito que se comentan en el anterior párrafo, originadas, fundamentalmente, por las obras de urbanización del polígono La Cruz. Los ingresos y gastos a generar por este proyecto debieron incluirse en las previsiones del presupuesto para 2010.
- La Liquidación del Presupuesto de 2010 fue aprobada el 17 de mayo de 2011, cuando la normativa establece su aprobación durante el primer trimestre del año. La Cuenta General debe aprobarse antes del 31 de julio y se retrasó hasta el 28 de setiembre de 2011.

III.2 PERSONAL

- La Relación de Puestos de Trabajo, al detallar las retribuciones correspondientes a los puestos de funcionario, indica el nivel retributivo del convenio del sector local (Udalhitz), en vez de desglosar el complemento de destino y el específico asignado a cada puesto (art. 15.2 LFPV). Al liquidar las retribuciones del personal tampoco se desglosan los conceptos retributivos de conformidad a los legalmente previstos.

III.3 TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES

- El Ayuntamiento concedió durante 2010 ayudas por 49.907 euros a 2 asociaciones para organizar las fiestas del municipio de manera directa, siendo más adecuada su asignación nominativa en el presupuesto. Además, la resolución de concesión de subvenciones por 49.907 euros para organizar las fiestas patronales no establecía los plazos de



justificación. En la documentación presentada por las dos asociaciones perceptoras se informa de remanentes positivos por un total de 10.227 euros, que se prevén aplicar a futuros ejercicios en un caso y a otra subvención que resultó deficitaria en el otro.

Deben establecerse los plazos de justificación, y las subvenciones no destinadas a la finalidad prevista deben ser objeto de reintegro.

